

INFORMAZIO-OHARRA: IT TXARTELA

2016-17ko EPErako IT Txartela informatika-ezagutzen ziurtagiriekin lotuta jasotako kontsultak ikusita, Osakidetzak honakoa jakinarazi nahi dizue:

1.- Deialdiaren oinarriekin bat etorritz baliokidetzat hartzen diren IT Txartelen modulu bakoitzaren bertsioei (2000/XP/2003/2007/2010) dagokienez, nahikoa izango da aipatutako bertsioen bat egiaztatzea dagokion eskakizuna edo meritua betetzat emateko.

2.- Modulu bereko oinarritzko bertsioa eta aurreratua egiaztatuz gero, bertsio aurreratua bakarrik hartuko da kontuan. Hortaz, bertsio aurreratua egiaztatuz gero, ez da beharrezkoa izango oinarritzko bertsioa eskuratzea.

3.- Lehiaketaldiko Prestakuntzako atalaren barruan dagoen Informatika Ezagutzen azpiatalean gehienez 2 puntu lortu daitezke.

4.- Meritu edo eskakizun gisa kontsideratua izateko IT Txartela lortzeko azken eguna dagokion kategoriako prozesuan izena emateko azken eguna izango da.

5.- Administrazioen kategorian: deialdiaren oinarrietan eskakizun gisa ezarritako Access-eko IT Txartela egiaztatzearekin lotuta, edozein bertsio maila aurreratua eskatzen da. Access 2010 maila bakarra bertsioa ez da maila aurreratutzat hartzen.

6.- Hautatze-prozesuan izena ematerakoan ez da beharrezkoa izango lortutako IT Txartelaren ziurtagiriarekin lotutako dokumentazioa entregatzea.